



## 2022ko aurrekontua, Udalak inoiz izan duen handiena

**ASTIKO**

Indarberiturik dator, bazkide gehiago, logotipo eta webgune berriarekin

6

**Josune De Vicente Chivitek erretiroa hartu du:**

“Hemendik aurrera erabiltzaile modura erabiliko dut liburutegiko zerbitzua”

9

**PLAX!**

Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua

10

# Astigarragako Udalak 10.439.177 euroko aurrekontua onartu du

Astigarragako Udalak inoizko aurrekontu handiena onartu du, EH Bilduren aldeko 7 botoekin eta EAJ/PNVren aurkako botoekin.



Urriaren 26an aurkeztu zuen udal gobernuak 2022ko aurrekontuaren proposamena. Auzoz auzoko bilerak egin ziren azaroan zehar eta udal taldeek emendakinak eta proposamenak egiteko aukera izan zuten. Prozesu hori amaituta, azaroaren 30eko soko Bilkuran Udalak 2022ko aurrekontua onartu zuen.

Astigarragako Udalak, lehen aldiz, 10 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua izango du. 2022ko aurrekontua aurreko urtekoa baino 1.317.343 euro handiagoa da, %14 handiagoa.

2022ko diru sarreretan aurreikusitako igoera hurrengo arrazoiengatik izan da:

- Astigarragako biztanleen kopuruak gora egin duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako herrien artean banatzen duen funtsa 947.002 eurotan handituko da.

- Zerga eta tasen %2ko igoeraren eta azken urtean biztanle errolda handitzearen ondorioz, zerga eta tasen diru sarrerak igotzea aurreikusten da.

- Poligonoetako hondakin bilketa-rengatik poligonoetako jarduerak 156.000 euro gehiago ordainduko dizkiote Udalari. Lehen Mankomunitateari ordaintzen ziotena orain Astigarragako Udalari ordainduko diote, bilketa zuzenean udalak egiten delako.

Gastuen aurrekontuan ere igoerak egon dira. Honi dagokionez, aipatu bertako sail guztiek aurrekontu handiagoa izango dutela. Aldi berean, Gizarte Zerbitzuen kasuan kontuan eduki behar da 2021ean Covid laguntzetarako 103.950,00 euroko gehikuntza berezi bat egin zela. 2022an ez denez horrelako laguntzarik aurreikusi, aurrekontua jaitسي egin da. Nolanahi ere, efektu hau

kanpoan utzita, Gizarte Zerbitzuen aurrekontua 16.070,00 euro igo da.

- Pertsonaleko gastuari dagokionez, 2022ko aurrekontuan udal-langileen lansarrietan %2ko igoera, 8 udaltzainen osatutako lan-taldea eta 2022an zehar erretiroa hartuko duten 3 funtzionarioentzako kalte-ordaina aurreikusi dira. Horrez gain, hezkuntza eta euskarako teknikariaren lanpostua eta Erribera kulturguneko atezain/administrari laguntzaile lanpostua sortzea aurreikusi da.

- Gastu arruntari dagokionez, honakoa aipa dezakegu:

Hondakinen bilketa eta tratamendurako 100.000 euro gehiago aurreikusi dira (diru-sarreretan aurreikusitako 156.000 euroko sarrera gehigarriak baino gutxiago).

Kale-garbiketa eta lorezaintza zerbitzuak indartzeko 125.000 euro eta 50.000 euro gehiago onartu dira, hurrenez hurren.

Herri bideen garbiketa-zerbitzu gehigarri bat ahalbidetzeko beste 40.000 euro aurreikusi dira.

Euskararen erabilera sustatzeko 10.000 euro eta kultur jarduerak eta jaien arloa indartzeko 103.000 euro onartu dira.

Kiroletan 70.000 euro onartu dira kiroldegia handitzeko 1. eta 2. faseen proiektuak idazteko.

Herriko elkarteentzako diru-laguntzak ere handituko dira, hala nola, musika-eskola, Goldea, Astigar, Eragiyok, Emakumeon Etxea eta AEK. Gainera, euskara ikasteko, komertzio jarduera berriak sustatzeko eta jaien antolaketarako finantzazioa areagotzea ere erabaki da.

Partaidetza prozesuei dagokienez 2022ko aurrekontuan hainbat partaidetza prozesu aurreikusi dira. Hala

nola, kultur etxe zaharraren erabilpenari buruzko partaidetza prozesua eta terrazen ordenantza berrikusteko prozesua. Halaber, 92.000 euro onartu dira Plan Orokorren berrikuspenarekin jarraitzeko.

Azkenik, inbertsioei dagokienez, 2022rako inbertsio partida hauek onartu dira:

- Herritarrek erabakitzeke Zure Esku ekimenaren baitan 120.000 euro.
- Donostia ibilbidea hiritartzeko proiektua: bizikleten eta oinezkoen mugikortasun segurua eta duina ziurtatzeko, Donostia ibilbidea hiritartzeko eta bidegorria egiteko inbertsioa egingo du udalak 2022an. Horretarako, 445.000 euro aurreikusi dira 2022an (horrez gain 2023ko beste partida bat erabiliko da).
- Txalakan kokatutako brigadaren lokal berria egokitzeko 185.000 euro aurreikusi dira. 185.000 euro hauek orain arte aurreikusi diren beste 515.000 euroei gehituko zaizkie.

• Sagardo Plaza eta Emakumeon plazaren arteko tunela egokitzeko 67.000 euro onartu dira, Emakumeon Plazaren eraberritzeari jarraipena eman eta puntu ilun horri irtenbidea emateko. Horrez gain, Emakumeon Etxerako altzariak erosteko 8.000 euro onartu dira.

- Kiroldegian eta Kultur Etxe Zaharreko teilatuetan plaka fotovoltaikoak jartzeko 108.000€ onartu dira. Plaka fotovoltaiko horiekin udal-instalazioen kontsumo energetikoa modu berriztagarrian eta herrian bertan hornituko da.
- Txominene pilotalekuko barandan kristala jartzeko 25.000 euro onartu dira frontoian hautsa sartzeko ekiditeko helburuarekin.
- Herriko hainbat seinalizazio berritzeko beste 17.734 euro onartu dira.
- Eta azkenik, herriko ur-kontadoreak berritzeko eta udaleko ekipo informatikoak berritzeko 35.000 euro eta 15.000 euro aurreikusi dira, hurrenez hurren.

## El ayuntamiento aprueba el presupuesto de 2022, que asciende a 10.439.177 euros, la cifra más alta de su historia

El 26 de octubre el gobierno municipal presentó la propuesta del presupuesto de 2022. Durante el mes de noviembre se han realizado reuniones en los barrios y los grupos municipales han tenido ocasión de realizar enmiendas y propuestas. Finalizado este proceso, en el Pleno del 30 de noviembre el Ayuntamiento ha aprobado el presupuesto de 2022.

Por primera vez, el ayuntamiento ha aprobado un presupuesto de más de 10.000.000 de euros, 1.317.343 euros más que el año pasado, un 14% superior al de 2021.

El presupuesto de 2022 contempla las siguientes inversiones:

- Donostia ibilbidea, proyecto de urbanización para habilitar una vía peatonal y ciclista decente y segura.
- Adecuación de los pabellones de Txalaka para posibilitar el traslado de la brigada.
- Reformar el túnel de paso entre Sagardo Plaza y Emakumeon plaza.
- Instalación de placas fotovoltaicas para abastecer el consumo energético de las instalaciones municipales.
- Mejora de la señalización urbana.
- Sustitución de contadores de agua.

En cuanto a al presupuesto de gastos de 2022, comentar que todas las áreas cuentan con un incremento considerable en comparación con el presupuesto del ejercicio anterior. En el caso de los Servicios Sociales debe tomarse en consideración que en el ejercicio de 2021 se dispuso una partida adicional de ayudas por la Covid19. En el ejercicio 2022 no se prevé dicha partida, por lo que, descontando su efecto, la partida presupuestaria de 2022 tiene un incremento de 16.070,00 euros.

Además de las inversiones previstas para el 2022, en los próximos meses el Ayuntamiento va a concluir inversiones importantes que ya están en ejecución o que están en fase de adjudicación:

- Nueva haurreskola.
- El ascensor de Arrobitxulo.
- Adecuación de las curvas del camino de acceso al barrio de Santiagomendi.
- Baños públicos en Portutxo, Foru plaza y Urumea Berri.
- Sustitución de 163 farolas a la tecnología LED.



1



## 1 Komun publikoak Portutxon eta Foru plazan

Portutxon komun publikoak egiteko, bizikletak garbitzeko gunea instalatzeko eta atsedenleku bat egiteko obra esleitu zaio ACUÑA SA enpresari (87.110,49 euroko prezioan). Bestetik, Foru plazan komun publikoak instalatzeko obra OLPRIM INGENIERÍA Y SERVICIOS SA enpresari esleitu zaio 77.835,58 euroko prezioan. Bi obra horiek otsailean hasi eta uda aurretik amaituta egongo dira.

## 2 Haur eskola

Astigarragako haur eskolako obrak martxan daude. Jandirik lokalaren barruko banaketa eginda dago, eta instalazioak sartuta. Fatxadak, ordea, bukatu gabe daude. Barruan, sabai faltsua eta zorua amaitzen ari dira.

Espero da obra martxoaren 15erako amaituta egotea, nahiz eta instalazio batzuk atzeratu daitezkeen material elektronikoa eskuratzeko arazoa dela eta.

## 3 Arrobitxuloko igogailua

Arrobitxuloko igogailua obretan dago. Goiko urbanizazioa jada eginda badago ere, igogailua hartuko duen dorrea obretan dago. Dorre hau laster iritsiko da herri eskolako jolas patioaren parera.

Obraren zatirik handiena apirilaren 15erako, gutxi gorabehera, amaituta egongo dela aurreikusten dute, nahiz eta beste hilabete batzuk beharko diren instalazioak legezatzeko eta igogailuak funtzionatu ahal izateko.

## 4 Kaleak garbitzeko makina

Joan den udazkenean Udalak bide-garbitzeko kontratu berria jarri zuen martxan, zerbitzua hedatu eta kalitatea hobetzeko helburuarekin. Zerbitzu berriak espaloiak garbitzeko makinak bat izango du (epe laburrean hasiko dena). Makina horrek presiozko lurrinarekin eta eskuila mekanikoekin espaloi eta plazan gainazalak sakonago garbituko ditu.



2



3



4

## 5 Energia kontsumoa murrizteko eta argi kalitatea hobetzeko Udala 163 farola Led teknologiarara aldatzen ari da

Teknologia horrekin farolen energia kontsumoa %75 inguru murrizten da eta argiaren kalitatea hobea da. Aldaketa honekin Astigarragan dauden farola guztien %53 Led teknologiarako izango dira eta haien energia kontsumoaren %75 inguru aurreztuko da.

Gainera, nabarmentzekoa da, aurrezpen horrek atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen murrizketa ekarriko duela. Beraz, ekimen honek udal esparruan laguntzen du Glasgow berriki egindako Nazio Batuen konferentzian jasotako helburuak lortzen.

## 6 Udalak hiru desfibriladore berri jarri ditu herrian

Desfibriladoreak Erribera Kulturgunean, Txomiñene pilotalekuan eta Kale Nagusia 21ean aurkitzen dira (Farmazia Aguadoren kanpoaldean). Bat-bateko bihotz-geldialdi baten aurrean tresna horiekin berehala laguntzeak bizitzak salba ditzake. Hori dela eta, Udalak herrian zehar ere kokatzea erabaki du. Desfibriladorea erabiltzen ikasteko zenbait prestakuntza-ikastaro eskaini zitzaizkien hainbat pertsonari, borondatezko eta doako ikastaroa izanik.

## 7 Kiroldegia, partaidetza prozesuan ateratako datuak

Astigarragako Udalak azaroa eta abenduan zehar kiroldegia handitzeko abiapuntuko azterketa eta proposamena aurkeztu eta partaidetza prozesua bideratu du, herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko. Herritarrek beren iritzia emateko aukera izan dute galdetegi baten bidez, online eta paperean. Guztira 299 galdetegi jaso dira. Emaitzak laburbilduta: partehartzaileen %84 ados agertu da proposamenarekin (%48 erabat ados eta %36 nahikoa ados). %59arentzat lehentasun nagusia igerileku estalia da eta %15arentzat fitnes gela handitzea.



5



6



7

# “ASTIKO” Astigarragako merkatari, ostalari eta zerbitzuen elkarte



2008ko maiatzaren 5ean sortu zen Astiko elkarte Astigarragako hainbat merkatari, ostalari eta zerbitzuen eskutik. Elkarte honek ondorengo erronkei irtenbidea bilatzea zuen helburu:

- Elkarte barruan dauden kideen interes ekonomikoak, profesionalak, sozialak eta kulturalak babestu, ordezkatu, kudeatu eta sustatzea.
- Hobekuntza sozialak eta ekonomikoak lortzea elkarteko kideentzat, behar diren ekintzen bitartez.
- Elkarteko kideak trebatzeko ikastaroak etengabe antolatzea.
- Bitartekari lana betetzea eta erakunde eta agintarien aurrean zerbitzua hobekuntza lortzea.
- Sustapen-ekintzak eta kanpainak antolatzea elkarteko kideentzat.

2014ean Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (MBPB edo PERCO) egin zuen Siadecok Astigarragako Udalak hala eskatuta. Lan horrek 2015-2019 arteko ekintza-plana jaso zuen, eta besteak beste, Astiko Elkarte dinamizatze beharra antzeman zen. Horren aurrean, Udalak eta Elkarteak berak Siadecori eskatu zioten elkarte dinamizatu zezan. 2015etik darama lan

horretan, elkartearen dinamizatzaile moduan eta aholkularitza teknikoa eskainiz.

Elkarteak ordutik egin duen bidearen isla dira, hain zuzen ere, bazkide -datuak. 2015ean herriko 15 establezimendu inguru ziren Astiko elkarteko bazkide eta 2021ean, aldiz, 40 inguru izan dira.

Honez gain, urte osoan zehar, herriari bizitza emateko hainbat ekimen eta jardura antolatzeaz ere arduratzen da Astiko elkarte. Besteak beste sentsibilizazio-ekintzak, Gabonetako haur parkea, zozketak etab.

Egindako eta egun egiten ari diren lan ez gain, etorkizunera begirako erronkatzat definitzen dituzte ondorengoak:

- Sektorearen interes komunak defendatzen jarraitzea. Besteak beste, Udalaren aurrean bitartekari moduan aritzea.
- Astigarragako eskaintza zabaltzea, bereziki, merkataritzarena.
- Bertako kontsumoa sustatzea.
- Merkataritzaren digitalizazioan sakontzea.

## “ASTIKO” Asociación de comerciantes, hosteleros y servicios de Astigarraga

La asociación Astiko nació el 5 de mayo de 2008 de la mano de varios comerciantes, hosteleros y servicios de Astigarraga. El objetivo de esta asociación era buscar soluciones a los siguientes retos:

- Proteger, representar, gestionar y promover los intereses económicos, profesionales, sociales y culturales de los establecimientos asociados.
- Lograr mejoras sociales y económicas para los establecimientos asociados a través de las acciones necesarias.
- Organización continua de cursos de formación para los establecimientos asociados.
- Llevar a cabo la labor de mediador y conseguir la mejora del servicio ante instituciones y autoridades.
- Organizar acciones promocionales y campañas para los establecimientos asociados.

Actualmente, la asociación Astiko también se encarga de organizar diversas iniciativas y actividades para dar vida al pueblo, entre las que se encuentran: acciones de sensibilización, parque infantil navideño, sorteos... Y de cara al futuro, han definido los siguientes retos:

- Continuar defendiendo los intereses comunes del sector. Entre ellos, actuar como mediador ante el Ayuntamiento.
- Ampliar la oferta comercial de Astigarraga.
- Fomentar el consumo local.
- Profundizar en la digitalización del comercio.

# Plan Orokorra berrikusten: alternatibak lantzeko unea

Alternatibak aurkeztu eta lantzeko lan-saioa egingo da otsailaren 3an, Erribera kulturgunean.

Aurrera doa Astigarragako hirigintzako plan orokorra berrikusteko prozesua eta une erabakigarrian sartzea goaz, izan ere, diagnostikoa amaituta, alternatibak aztertu eta lantzeko unea da.

## Urritik abendura diagnostikoa

Joan den urrian plan orokorraren diagnostikoa aurkeztu zuen udalak eta parte hartze prozesua burutu zuen, herritarren ekarpen eta iritzia jaso eta diagnostikoa osatzeko.

Hainbat ekimen bideratu ziren, hala nola, karpak kalean, lan-saio edo tailerra Erribera kulturgunean, galdetegia (paperean eta online)... Herritarren parte-hartzea azpimarragarria izan da, izan ere, guztira 199 galdetegi jaso ditu udalak.

## Alternatibak aurkeztu eta landu, otsailaren 3an

Diagnostikoa amaitu ostean, hurrengo urratsa alternatibak lantzea da. Horrek esan nahi du arloz arlo dauden aukerak aztertu eta alternatiba edo norabide orokor bat zehaztu eta aukeratzea, gero teknikoki zehaztasunez lantzeko (plan orokorraren aurrerapen dokumentua lantzeko).

Horretarako, alternatibak aztertze-ko eta lantzeko, lan-saio irekia egingo da otsailaren 3an, 18:00etan, Erribera kulturgunean. Saio horren aurretik Hirigintzako Aholku Batzordeak bilera egingo du.

Une erabakigarria da eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa, alterna-



tibak landuz Astigarraga datozen 10-15 urteotan nondik nora garatuko den zehaztuko dugulako.

Informazio gehiago:  
[gurebidea.astigarraga.eus](http://gurebidea.astigarraga.eus)

## Revisión del Plan General: momento de trabajar las alternativas

El 3 de febrero se realizará una sesión de trabajo para la presentación y elaboración de alternativas en el centro cultural Erribera.

Se avanza en el proceso de revisión del Plan General de Urbanismo de Astigarraga y entramos en un momento crucial, ya que una vez finalizado el diagnóstico, es el momento de analizar y elaborar alternativas.

### Diagnóstico octubre-diciembre

El pasado mes de octubre el Ayuntamiento presentó el diagnóstico del plan general y realizó un proceso participativo para recoger las aportaciones y opiniones de la ciudadanía y completar el diagnóstico.

Iniciativas como carpas en la calle, sesiones de trabajo o taller en el centro cultural Erribera, cuestionario (en papel y online)... La participación ciudadana ha sido destacable, ya que el Ayuntamiento ha recibido un total de 199 cuestionarios.

### Presentación y elaboración de alternativas, 3 de febrero

Una vez finalizado el diagnóstico, el siguiente paso es trabajar las alternativas. Trabajar las alternativas supone analizar las alternativas existentes por áreas y definir y seleccionar una alternativa o dirección general para posteriormente trabajarla con precisión técnica (para elaborar el documento de avance del plan general).

Para ello, se realizará una sesión de trabajo abierta el día 3 de febrero, a las 18:00 horas, en el centro cultural Erribera. Previamente a dicha sesión se reunirá el Consejo Asesor de Urbanismo.

Es un momento crucial y en el que la participación ciudadana es imprescindible, ya que trabajaremos las alternativas para determinar desde dónde se va a desarrollar Astigarraga en los próximos 10-15 años.

Más información: [gurebidea.astigarraga.eus](http://gurebidea.astigarraga.eus)

# Astigarragako Udal Liburutegia



## Biblioteca Municipal de Astigarraga

La biblioteca municipal de Astigarraga cuenta actualmente con 2465 lectores registrados, cifra que ha ido aumentando a lo largo de los años, ya que las altas de lectores han ido aumentando.

En 2021 el Ayuntamiento ha abierto la nueva biblioteca en el centro Erribera, instalando nuevos equipamientos y mobiliario.

Además de los servicios comunes, la biblioteca municipal organiza diversas actividades a lo largo del año y participa en algunas iniciativas de la zona.

- Cuenta con dos grupos de lectura. Uno en euskera, el cual este año se reunirá cada dos meses, y otro en castellano, que se celebra una vez al mes.
- Una vez al mes cuentan con Lur Korta, quien acude a contar cuentos. Además, de vez en cuando acude alguno más. El día del libro del año pasado contaron con Ana Apika.
- Durante los meses de junio y noviembre se han llevado a cabo los talleres literarios y creativos “un libro, un mundo” con Mestiza Kultur Elkarte, en los que han participado niños de la Herri Eskola de Astigarraga.

Para conocer todos los servicios que ofrece la biblioteca puedes visitar la página de Facebook de la biblioteca.

Gaur egun Astigarragako udal liburutegian 2.465 irakurle daude erregistratuta. Urteetan zehar etengabe handitzen joan den kopurua da.

2021ean liburutegi berria Erriberan zabaldu eta altzari eta ekipamendu berriak jarri ditu Udalak.

Udal liburutegiak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, hala nola:

- Liburu, aldizkari, DVD, CD etab. liburutegian bertan erabiltzeko edo maileguan etxera eramateko aukera.
- Ordenagailuak eta Internet erabili daitezke eta gainera, inprimatzeko aukera eskaintzen da, horretarako espazioa ere ahalbideratuz.
- Eguneroko prentsa eskuragarri dago bertan: 5 egunkari eta eskualdeko “Kronika”.
- Liburu elektronikoak mailegatzeko eta filmak ikusteko aukera eskaintzen dute eLiburutegia online plataformaren bidez.
- Kontsulta eta aholkularitza eskaintzen zaie irakurleei. Besteak beste, irakurketaren inguruko kontsulta eta

aholkularitza emateaz arduratzen dira bertako langileak.

- Erreprografia zerbitzua ere eskaintzen zaie bertako bazkideei.

Horrez gain, udal liburutegiak zenbait ekintza antolatzen ditu urtean zehar, baita inguruko ekimen batzuetan parte hartu ere. Honi esker, liburutegiak bisita gehiago jasotzen ditu urteko zenbait momentutan.

- Bi irakurketa talde daude. Bat euskaraz, aurten bi hilean behin elkartuko dena, eta bestea gazteleraz, hilean biltzen dena.
- Hilean behin Lur Korta ipuin kontalaria izaten dute eta noizean behin besteren bat. Aurreko urteko liburuaren egunean Ana Apika kontalaria izan zuten.
- Ekainean eta azaroan “Liburu bat, mundu bat” literatur eta sormen tailerrak egin dira Mestiza Kultur Elkartearekin. Bertan Astigarragako Herri Eskolako haurrek parte hartu dute.
- Liburutegiak #euskaltzaleentopagunaren egitasmoan “irakurri, gozatu eta oparitu” lelopean egin zen kanpainan parte hartu zuen.

## BA AL ZENEKIEN?

**Ba al zenekien Astigarragako udal liburutegian irakurleen alta kopurua bikoiztu egin dela azken bi urteotan?** Izan ere, 2018an 74 pertsonak eman zuten alta, 2019an 94k, 2020an 268k eta 2021. urtean 216k.

**Ba al zenekien udal liburutegiak hiru egoitza desberdin ezagutu dituela?** Hasierako liburutegiak kutsu klasikoa zuen diseinu aldetik. 1991ko urtarrilean liburutegi berria inauguratu zen Kultur Etxe zaharreko azken solairuan, eta

hortik aurrera modernizatu egin zen. Hamarkada horretan herri guztietan liburutegiak hasi ziren sortzen eta honekin batera informatizazio garaia iritsi zen Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

**Ba al zenekien liburutegiak ipuin kontaketez gain, literatur solasaldiak ere antolatzen dituela herritarrentzat?** Euskarazko “irakurketa kluba” bi hilean behin elkartzen da eta gaztelanaizkoa, berriz, hilean behin.

Josune De Vicente Chivite:

## “Hemendik aurrera erabiltzaile modura erabiliko dut liburutegiko zerbitzua”



**Astigarragako Liburutegiaren sorrera Donostiatik desanexioa lortu baino lehen izan zen. Liburuzain bat zegoen Donostiako Udalak jarrita, eta 1987an Astigarraga herri bihurtu zenean, Udalak oposaketarako deialdia egin zuen. Horrela, 1988an Josune De Vicente Chivite liburuzain gisa hasi zen lanean, tresna bakarra idatz makina bat zuelarik. Aurten erretiroa hartu du.**

Zer da zure lanbidetik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Lanbidetik gehien gustatu zaidana liburutegian egindako lana irakurleek baloratzea izan da. Baita bilatzen zutenak emaitza ona izaten zuela ikustea ere. Haur txikiekin lan egitea ere oso polita izan da eta beti saiatu naiz haurren fondoa oso ondo zaintzen. Umeen irriek asko alaitzen ninduten.

Bestetik, gutxien gustatu zaidana lan administratiboa, estatistikak... izan dira. Lan astuna iruditzen zitzaidan. Jendeak liburutegiko arauak ez errespetatzeak ere asko mintzen ninduen.

Nola egin duzu hainbeste urtetan liburuak gomendatzeko? Zure gustuen arabera?

Urte mordoxka hauetan zerbitzu asko eskaini dizkiet irakurleei, horien artean liburu gomendioak. Erabiltzaile batzuek nire iritziak eskertzen zituzten, baina iritzi propioa zutenek gustukoa zutena aukeratzen zuten. Beti galdezen zidaten ea liburu guztiak irakurriak nituen. Nik esaten nien guztiak ezagutzen nituela, baina guztiak irakurtzea ez zela posible.

Erabiltzaileak ezagutzen dituzun heinean, beraien gustuak ezagutzen hasten zara. Nik liburu batzuk proposatzen nizkien irakurtzeko baina azken erabakia beraiena zen. Hori ere pista bat zen hurrengoan antzeko gaiak eskaintzeko.

Baduzu irakurketa sustatzeko errezetarik? Zer aholkatzen diezu seme-alabek irakur dezaten lortzeko formula magiko bat nahi duten guraso “desesperatuei”?

Irakurketa sustatzeko errezetarik ez nuke aipatuko. Liburuzainak saiatu behar gara publikoari esparru lasaiak eta erosoak eskaintzen. Irakurleei etxeko giro bat eskaintzeak garrantzia handia duela uste dut. Irakurketa neurri handi batean etxean transmititzen da. Txikiak direnean, irakurketa momentuan, gurasoak lagun bihurtzen dira istorioez gozatzeko. Haurrei aukera eman behar zaie liburu mundua ezagutzeko eta agian irakurtzen jarraituko dute.

Gurasoak irakurleak baldin badira umeentzat eredu bat izango dira eta kultura arloan herrian sortzen diren ekintzetan hurrekin parte hartzeak ere eragin ona izango du.

Zergatik esango zenuke liburuak lagun onak direla?

Liburuek beste tresnek bezala (ordenagailuak, joko didaktikoak, kirolak...) pertsonen garuna aktibatzen dute. Bide berriak deskubritzen laguntzen dute, asko ikasten dugu eta informazioa eskuratzen dugu. Hizkuntza aberasteko errekurtsu bikaina ere badira.

Uste duzu liburu digitalak merkatua aldatzen ari direla? Zure ustez, nola eragiten diote informazioaren eta komunikazioaren teknologiek liburutegiei?

Liburu digitalak beste aukera interesgarriak dira eta liburutegiek eskaini behar dituzte. Gaur egun bai liburuak papelean bai liburu digitalak elkarrekin bizi dira. Irakurtzeko aukerak zabaltzen dira eta pertsona bakoitza libre da euskarri batean edo bestean irakurtzeko.

Ez dut uste liburu digitalak liburu fisikoaren desagerpena ekarriko duenik. Biak batera erabiltzea posible da. Liburuaren industriak liburuak produzitzen jarraituko du.

Euskadiko liburutegietan, Eusko Jaur-laritzak zerbitzu digitala jarri zuen mar-txan eta eliburutegia plataformatik eskaintzen da.

Zein izan da liburuzain gisa bizi izan duzun unerik goxoa edo anekdotarik dibertigarriena?

Anekdotak dibertigarriak eta ez hain dibertigarriak izan ditut. Haien artean irakurle bati gertatu zitzaiena. Liburutegira etorri eta mahaian lo seko geratu eta zurrungaka hasi zen beste irakurleen barreak sorrarazten. Behin ere, beste pertsona batek, txakurra ekarri zuen liburutegira eta noski kalean utzi behar izan zuen. Umeek gozokiak eta merienda oparitzea ere beste ohitura bat izan da urte hauetan.

Nolako izango da zure egunerokoa hemendik aurrera?

Nire egunerokoa mostradore atzean egotea izan da eta ahal nuen hobekien jendea laguntzea. Publikoaren aurreko orduak betetzeaz gain, lan teknikoak burutu behar nituen barruko lana ez pilatzeko. Hemendik aurrera erabiltzaile moduan erabiliko dut liburutegiko zerbitzua. Gustuko liburuak aukeratuko ditut eta jarraituko dut ikasten ahal dudana. Denbora libre izango dut gustatzen zaidana egiteko eta bizitzaz gozatzeko.

Bukatzeke, gehien gustatu zaizkizun hiru liburuak gomendatzea gustatuko litzaiguke.

Klasikoen artean aipatuko nituzke: Gabriel Garcia Marquezen *Cien años de soledad* eta John Williamsen Stoner liburuak. Eta azken boladan irakurri ditudan berrien artean: Amets Arzallusen *Miñan*, Juan Jose Millasen *El mundo* eta Erri de Lucaren *Imposible* liburuak.

# PLAX! Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua

**Urtea bete du Plax! zerbitzuak, astigarrarrei harreman sentimentalen eta helburu erotikoen inguruko bide-laguntza eskaintzen dien zerbitzuak. Balantzea oso positiboa da eta zerbitzua sendotu eta egonkortu egin da.**

Plax zerbitzuaren helburu orokorra Astigarragan harreman parekide eta gozagarriak sustatzea da. Horretarako, helburu hauen gainean lan egiten dute:

- Sexualitateen onarpen positiboa lantzea.
- Pertsona zein harremanen ezagutza, jakin nahia eta zaintza sustatzea.
- Harreman parekide eta osasuntsuak sustatzea.
- Edertasun eredu inposatuaren aurrean alternatibak balioan jartzea.
- Digitalizazioak gure harremanetan eta erotismoan duen eraginaz jabetzeko, hausnarketa eta ardura kolektiboak hartzea sustatzea.

## Aholkularitza pertsonalizatua

Plax! Zerbitzuaren bidez, Astigarragako 16 urtetik gorakoentzat zuzendutako arreta profesional eta konfidentziala eskaintzen da, besteak beste, norbere gorputza ezagutzeko, kontaktu intimorako modu berriak ezagutzeko, bikote eztabaidak gutxitzeko eta zauriak sendatzeko, seme-alaben sexu-hezkuntzarako irizpideak jasotzeko, edota mundu digitalean harremanen inguruko kezak argitzeko eta aukerak sortzeko.

Eskaintzen diren aholkularitza pertsonalizatuek, herriko talde eta eragileekin egiten diren lanketek eta komunikazio eta sentsibilizazio estrategiek lau



ardatz nagusi jarraitzen dituzte: Tratu onen kultura, konpetentzia sozio-emozionalak, aniztasunetik parekidetasunera eta zaurgarrien boteretzea eta indarkeriaren prebentzioa.

## 2020-2021 urteko datuak

Erabiltzaileen balorazioa oso ona izan da eta ekintzei jarraipena emateko eskaerak jaso dira. Besteak beste, hauek dira Plax! Zerbitzuak azken urte honetan eman dituen emaitzak:

- Gizon eta emakume helduentzako 62 saio pertsonalizatu eskaini ziren.
- Gazte eragileei 4 formakuntza eskaini zitzaizkien.
- Gazteekin 3 tailer landu ziren hilekoari buruzko eta sexualitateari buruzko zalantzak argitzeko.
- Emakumeentzako menopausia eta erotismoari buruzko ziklo labur bat egin zen.
- Gurasoentzako haurrak eta pornografiari buruzko 2 tailer egin ziren.

## Nola jarri naiteke harremanetan?

Astigarragako Plax! Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua doakoa eta konfidentziala da. Hitzordua egiteko, 656 544 606 telefonora deitu edota Whatsapp-ez idatzi dezakezu, [www.astigarraga.eus/sexu](http://www.astigarraga.eus/sexu) webgunea erabili edo sare sozialen bidez harremanetan jarri: @Parremanitz Twitterren eta @PlaxArremanitz Facebooken.

## PLAX! Servicio de asesoramiento sexual y de pareja

El objetivo principal del servicio Plax! es fomentar las relaciones paritarias y saludables en Astigarraga. Para ello trabajan sobre los siguientes objetivos: trabajar la aceptación positiva de las sexualidades; fomentar el conocimiento y el cuidado de las personas y relaciones; promover relaciones igualitarias y saludables; poner en valor alternativas a modelos de belleza impuestos; promover la reflexión y la asunción de responsabilidades colectivas para tomar conciencia del impacto de la digitalización en nuestras relaciones y erotismo.

A través del servicio Plax! se ofrece una atención profesional y confidencial dirigida a mayores de 16 años con el objetivo de conocer su propio cuerpo, minimizar las discusiones de pareja, recoger criterios para la educación sexual de hijos e hijas, o aclarar inquietudes, entre otras cosas.

La valoración de los usuarios ha sido muy positiva durante el pasado año 2021 y se han recibido numerosas solicitudes para dar continuidad a las acciones.

# Plan Orokorra, hurrengo 10-15 urteetarako lehentasun nagusia

Astigarragako Plan Orokorra berrikusten ari gara, hurrengo 10-15 urteetako hirigintza-garapena, lurzoruaren erabilera eta ekipamenduen garapena definituko dituen prozesua. Hainbat aukera baloratzeko eta lehentasunak zehazteko unea da.

Estamos desarrollando el proceso de revisión del Plan General de Astigarraga, un proceso que definirá el desarrollo urbanístico, de usos del suelo y de equipamientos de Astigarraga de los próximos 10-15 años. Es el momento de valorar distintas alternativas y definir las prioridades.

Baina, zein da zuen udaltaldearen iritzia?

¿Cuál es la opinión de su grupo municipal?

Xabier Urdangarin

EH Bildu

## EKIPAMENDU PUBLIKOAK ETA HAZKUNDE JASANGARRIA

Plan orokorrak alderdi ugari arautzen eta antolatzen ditu, garrantzitsuak direnak, eta, beraz, funtsezkoa da epe erdi eta luzeko ikuspegiarekin lehentasunak garbi finkatzea. Bi kontzeptu hauekin laburbilduko ditugu gure iritzi eta lehentasunak: ekipamendu publikoak eta hazkunde jasangarria.

Ekipamendu publikoak: adierarik zabalenean hartuta, herritarrentzako ekipamendu publiko eta baliabide komunitario egokiak ziurtatuko dituen plan orokorra nahi dugu, erdigunean komunitatearen ongizatea jarriko duena, hirigintzaren arloan berritzaila diren hainbat zehar lerro txertatuz, besteak beste genero ikuspegia eta zaintza komunitarioa.

Hazkunde jasangarria: biztanle kopurua eta pertsona horiek ondo bizitzeko behar dituzten zerbitzu eta ekipamenduak orekatuko dituen garapen jasangarria nahi dugu. Eta, bistan denez, oreka hori lortzeko ahalegin berezia egin behar dugu, ekipamendu publikoak gehitzeko. Aurreko plan orokorraren gabezien ondorioak jasaten ari gara, bakarrik etxebizitzak lehenetsi zituelako, ekipamenduak ahaztuta. Neurrigabeko etxebizitza hazkunderaren aurrean, berriz, zentzuz jokatu nahi dugu, bertako gazteek bertan bizi ahal izateko eskariari erantzun dion etxebizitza politikarekin, alokairu sozialean esfortzuak areagotuz.

Lehentasunak ezarri behar dira edukietan. Baina baita egiteko eran ere. Gure lehentasuna garbi dago, plan orokorra berrikustea herritarrekin batera, zurekin batera, gure bidea marraztu behar dugulako.

Nerea Zusberro

EAJ-PNV

2010etik indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO), EAK eta EAJ-PNVk elkarrekin egindako gobernu-legegintzaldian gauzatu zen eta Astigarraga balioan jarri du azken urteetan: bizi-kalitate handia, hiriburuaren ondoan eta herritarrei gero eta kalitate hobea goko zerbitzuak eskaini dizkio.

Horien artean, Kultur Etxe berria nabarmendu behar da. Gainera, egungo HAPOari esker, Astigarraga beste udalerriekin lotzeko azpiegiturak garatu dira. Ahaztu gabe, etorkizun hurbilean, Astigarragak tren-geltokia ere izango duela.

Egungo HAPOak Urumea Berri auzoaren garapena ahalbidetu du. Horri esker, Astigarragako gazteek herrian bertan gelditzeko aukera dute, gure kultura eta nortasunaren onerako.

Honen berrikuspina ingurumena babesteko premiarekin egin behar da: eraikita dauden espazioak biziberrituz, inola ere ez landagunea kolonizatuz.

El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), vigente desde 2010 y fruto del gobierno conjunto entre EA y EAJ-PNV, ha permitido el desarrollo de Astigarraga hasta lo que hoy en día conocemos: un pueblo con una gran calidad de vida, a un paso de la capital y con buenos servicios.

Entre ellos, cabe destacar la nueva Casa de Cultura. También ha posibilitado el desarrollo de infraestructuras que conectan Astigarraga con otras localidades; sin olvidar que pronto se construirá la estación de tren.

El actual PGOU ha permitido el desarrollo de un barrio moderno como el de Urumea Berri. Gracias a ello, la juventud de Astigarraga puede quedarse: así se preserva la cultura e identidad de nuestro pueblo.

Su revisión debe realizarse bajo la premisa de protección al medio ambiente: el respeto al ámbito rural debe regir la elaboración del nuevo Plan General de Astigarraga.

Mikel Duran

PSE-EE

Astigarragako PSE-EEen uste dugu garrantzitsua dela udalerriko herritar guztiek Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren diseinuan parte hartzea, etorkizuneko Astigarraga eraikitzea.

Udalerriak ia mila eraikineko hazkunde positiboa izan du 2010-2019 aldirian. Hau da, ia % 50eko igoera eman da. Etxebizitza kopuru esanguratsua, prospekzioa eta egungo beharretara egokitzeko premiarekin. Behar horiek herritarrentzako zerbitzu berriak indartzeari eta sortzeari lotuta daude.

Unos servicios dirigidos al ámbito sanitario y de cuidados, como la ampliación del ambulatorio, dado el aumento exponencial de la población, o la creación de una residencia de ancianos, en previsión como marca el diagnóstico de un leve envejecimiento poblacional.

Aunque la prioridad, a la hora de diseñar el Plan General de Ordenación Urbana, recae en el enfoque medioambiental. Un aspecto primordial que debe garantizar y preservar a las generaciones futuras un uso sostenible del territorio que haga de Astigarraga un municipio amable y humano.



# Sagardoetxea

herri baten erroak



Eman zure  
iritzia,  
**bozkatu!**  
¡Opina, vota!

## HERRI GALDEKETA

Eguna: Otsailak 6

Ordua: 9:00etatik 20:00etara.

Non: Erribera Kulturgunean

## CONSULTA POPULAR

Día: 6 de febrero

Horario: De 9:00 a 20:00 horas.

Lugar: En el Centro Cultural Erribera.

## ALDEZ AURREKO BOTOA VOTO PREVIO

Urtarrilaren 19tik otsailaren 1 arte, Udaletxean.  
Del 19 de enero al 1 de febrero, en el Ayuntamiento.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan:  
9:00etatik 13:30era

Lunes, miércoles y viernes:  
de 9:00 a 13:30

Astearte eta ostegunetan:  
9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara

Martes y jueves: de 9:00 a 13:30  
y de 16:00 a 19:00

# Erabaki

## Sagardoetxearen etorkizuna

Sagardoetxearen norabidea erabakitzeko  
herritarrentzat galdeketa-prozesua.

## El futuro de Sagardoetxea

Proceso de consulta ciudadana  
para decidir el futuro de Sagardoetxea.



### Astigarragako Udala

Foru Enparantza 13  
20115 Astigarraga  
Tel: 943 335050  
udala@astigarraga.eus

[www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)

